

Hilabetez *dramoi* eder baten bila ibili ostean Tirreniar itsasoaren [1] uretan topatu dut oraingoan kontatuko dizuedan kondairaren protagonista mitologikoa. Zuekin:

## **Arduinosaurus Kafkianensis piztia nardagarria\*!**

\* **ARDUINO CC vs ORG afera bezala ezaguna, baita ere**

Wikipediak zera dio Arduinoari [2] buruz:

Arduino kode irekiko plataforma elektronikoa bat da, software eta hardware erabilerrazean oinarritua. Proiektu interaktiboak egiteko asmoa duen edonori zuzendua dago.



Arduino sortu zuen taldea: (atzean) Dave Mellis eta Tom Igoe;  
(aurrean) Gianluca Martino, David Cuartielles eta Massimo Banzi  
(Wikipediatik, CC BY-SA)

2005. urtean aurkeztu zuen Arduino proiektua *lagun talde* batek. Proiektua, garapena, komunitatea... irekia izan da eta izaten ari da, teknologia libreen filosofiarekin bat. Dena den, proiektuaren bideragarritasun ekonomikoa bermatzearren Arduino marka komertziala erregistratzea erabaki zuten, eta hala egin ere... Ameriketako Estatu Batuetan. Baina, hemen dator *gibelaldeko labainkada*, lagun hauetako batek aldi berean **Italian erregistratu zuen marka**. **Kasualitatez, Arduino plakak ekoizten dituen eta jabe den faktoria dagoen herrialdea da.**



Urteetan zehar eta teknologia librearen *flower-power*-a dela medio gatazkarik gabe aritu izan dira: Arduino plaka ofizialak Italiakoak dira, lagun hauetako baten faktorian ekoiztuak eta bere enpresaren bitartez salduak. Aldi berean enpresa honek *royalty*-ak ordaintzen dizkio Arduino talde/komunitateari (.cc) [3].

Arduino taldeak (.cc) plaken ekoizpena beste faktoria eta herrialdeetara zabaltzeko (barne) mugimendua egiterakoan (Arduino proiektua ekonomikoki bermatu eta auspotzeko *maker/elektronika enpresa* ezberdinekin hitzarmenak egin nahi izan zituztenean ) ametsa ameskaizto zela ohartu ziren: **patente/marka gatazka internazionala zuten eskutartean.**

Bestalde, hau gutxi balitz eta dirudienez, **mozkina murriztuko zitzaiola ikusita**, Italian marka erregistratua zuen eta plaka ekoizle faktoriaren jabe den *lagunak royalty-ak ordaintzeari utzi zion duela urte eta erdi*. Detalle honek ihes egin zion Arduino taldeari (.cc), *flower-power* lanbro artean murgilduta.

Eta azkenekoz, kondaira hau idazterako egunean behintzat, kontraerasoa prestatu zuen, gainera, duela hilabete batzuk (2014 amaieraldean). Zirt-zart batean **arduino.org** [4] webgunea martxan jarri eta **zilegizko Arduino orijinalak bereak zirela aldarrikatu zuen**, *prentsa-ferekatze* kanpaina abiatu zuelarik. Prentsa kanpaina honek Italian oihartzun handia izan du, eta nahaste-borrastea oraindik gehiago kakaztu du.

**Baina badirudi Arduino taldea (.cc) jakinaren ganean zegoela eta auzia prestatzen ari zirela abokatu eta guzti.** Dena den, *lagun* honen azken labankada honek **prozesua bizkortu eta publizitatzera behartu ditu**, eta hau izan da azken asteotan Internet barrunbeetatik entzun ahal izan degun orrua eta piztiaren arrastoaren atzetik jarri nauena.

Adi, beraz, hurrengo asteotan mugimendu handia izango baitugu Tirreno itsasoan. **Dagoeneko enpresa ugari ari dira beren posizioa “adierazten”**, zeharka, oraindik auzitan sartzeko aukera dute eta, badaepada ere. **Enpresa, kolektibo, webgune... ezberdinek babes kanpainak sustatu dituzte**, erositako Arduinoei argazkia ateratzearena adibidez [5], zeinetan *copyright*-a Arduino.cc taldearena dela frogatzen den.

Honaino ba *Arduinosaurus Kafkianensis* piztia mitologiko nardagarriaren kondaira. Ea hurrengoan zer arrantzatzen dedan!

PS: **Arduinoren etorkizuna bermatua dago**, teknologia mundua aldatu baitu dagoeneko eta gauza izugarriak egin eta partekatzea bultzatu bait ditu **ehundaka milaka benetako lagun**. Enpresak, kolektiboak, banakakoak... babes izugarria izango du **Arduino.cc**-k prozesu narrats guzti honetan zehar eta azkenean **dena argituko da, teknologia eta ezaguntza librearen onurarako**, ez dut zalantza izpirik!

**Bibliografia:**

- [1] [https://eu.wikipedia.org/wiki/Tirreniar\\_itsaso](https://eu.wikipedia.org/wiki/Tirreniar_itsaso)
- [2] <https://eu.wikipedia.org/wiki/Arduino>
- [3] <http://www.arduino.cc/>
- [4] <http://arduino.org>
- [5] <https://blog.adafruit.com/2015/04/19/please-post-old-arduino-packaging-that-says-manufactured-under-license-from-arduino-teamarduinooc/>
- Info +
- [6] <http://blog.arduino.cc/2015/04/20/want-to-help-arduino-cc/>
- [7] <http://hackaday.com/2015/04/19/your-arduino-packaging-could-sway-a-court-case/>
- [8] [https://www.reddit.com/r/arduino/comments/339aro/adafruit\\_post\\_your\\_old\\_arduino\\_packaging\\_to/cqiuzy](https://www.reddit.com/r/arduino/comments/339aro/adafruit_post_your_old_arduino_packaging_to/cqiuzy)

**Zabaldu:**

- [Click to share on Twitter \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Facebook \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Telegram \(Opens in new window\)](#)
- [Click to share on Pocket \(Opens in new window\)](#)

